



Izena emateko oinarriak.

Azken eguna:
Ekainak 20, 013.

Izena emateko oinarriak

Deialdia, doako tailer hau barne dagoen [ARTEA-ARGAZKIGINTZA-MODA](#) egitarauan parte- hartuko duten 5 ikus- arte sortzaile eta 5 moda- sortzaile aukeratzeko antolatu da.

Ikus- arte sortzaileak: Argazkigintzan esperientzia egiaztatua duten ikus- arteen ikasle zein profesionalak.

Moda- sortzaileak: moda- sorkuntzan (moda diseinu zein ehungintza euskarriko sorkuntza) duten ikasle zein profesionalak.

Antolatzaileek 5 sorkuntza- bikote antolatuko dituzte aukeratutako parte- hartzaileekin (ikus- arte sortzaile bat eta moda sortzaile bat bikote bakoitzeko). Bikote bakoitzak Artelekun egingo den tailerrean elkarlaneko proiektu bat landuko du, emaitza hoberenak Cristóbal Balenciaga Museoa izango den erakusketan erakutsiko direlarik.

Proiektuek, artea-argazkigintza-moda konfluentziaren baitan eta sortzaileen erreferentzia mapa pertsonalekin batera, arteekin erlazio zuzena duen Cristóbal Balenciaga moda diseinatzailearen lanaren oihartzuna libreki interpretatuko dute, lotura elementu bezala. Proiektuek iradokitzen diren oihartzunak edo parte- hartzaileek garatu nahi dituzten bestelakoak interpretatu ditzakete: araztutako teknika; geometria eta jantzia; artean, historian, folklorea eta espiritualtasunean inspirazioa.

Deialdian sartzeko hautagaiek proiektu pertsonalak bidaliko dituzte, eduki hauek jasoko dituztelarik:

Moda- sorkuntza: Proiektuaren kontzeptua eta 1-3 sorkuntza **gauzatuak*** (bere argazkiak bidaliko dira).
*Elkarlaneko proiektuak tailerraren barnean bideratu ahal izateko, moda- sorkuntzak tailer aurretik gauzatuak izatea beharrezkoa da, egokitzapenak eta ahokadurak ahalbidetu daitezzen.

Ikus- arteak: Proiektuaren kontzeptua eta zirriborroak.

Proiektu pertsonalak (ikus-arte/moda) bikotean landuko den elkarlaneko proiektu egiturari egokituko dira tailerrean. Horretarako bere ideia gintza, beste alorreko sortzaile baten proiektuarekin elkar- eragingo duela kontutan izango du, malgutasuna klabe delarik.

Aukeraketak, proiektuen kalitatearekin batera, honakoak baloratuko ditu bereziki: artea-argazkigintza-modan bateratasunean egokitzeko gaitasuna, berrikuntza eta esperimentazio maila eta Cristóbal Balenciagaren lanarekin duen elkarbizketa.

Proiektuak gauzatzeko, parte- hartzaileek ikus-arte/moda tutore baten eta moda alorreko aholkulari baten laguntza izango dute. Erabili ahal izango duten ekipamendu bat prestatuko da, zeini behar duten beste elementuak -lan-taldea, hornikuntza teknikoak, eszenografia, etab.- bere kabuz batu ahal izango diote, beti ere antolatzaileekin adostu ondoren. Tailerrera prestatutako lan taldea eta ekipamendu teknikoak:

- Modelo bat. Emakumea edo gizonezkoa, proiektuaren arabera.
- Makillaje profesional bat.
- Ile- apainketa profesional bat.
- Proiektuak ekoizteko aretoa: 18 metro luzera x 12 metro zabalera x 4 metro altuera.
- Argazkigintza estudioko atzealdea: txuria edo beltza. 2,80 metroko zabalera eta 4 metroko altuera.
- Argiztapen ekipamendua: 2 fluoreszente pantailak -4 tutukoak-, 2 Kuarzo 500W, 2 Kuarzo 1000W, Fresnel bat Tungsteno Halogenoa 3.000W. Guztiak tripodeekin.

Aukeratutako parte- hartzaileek beherago zehazten diren data eta ordutegia dituen tailer osoan izatea onartzen dute. Baita ere, tailerrean ekoiztutako lanen erakusketarako egile- eskubideak ematen dituzte, bai horretarako prestatuko den erakusketan parte- hartzeko, bai Colectivo YOX, Arteleku eta Cristóbal Balenciaga Museoak euskarri grafiko, elektroniko eta digitalen bitartez egingo duten hedapenean.

Antolatzaileek parte- hartzen dutenen aukeraketaren eta bikoteen antolaketaren ahalmen osoa dute. Aukeratuak suertatzen ez diren hautagaiei ez zaie aukeraketan kanpo geratzearen arrazoiketak emango.

TAILERRAREN DATA ETA ORDUTEGIA

2013.ko uztailak 1, astelehenetik, uztailak 4, osteguna bitarte.

10.00-13.00 orduak/15.00-18.00 orduak.

2013.ko uztailak 5, ostirala.

10.00-13.00 orduak.

Proiektu bakoitzak bere ekoizpena prestatzeko beste bi ordu izango ditu.

Hautagaiek zehazten den dokumentazioa jasotzen duen txostena bidaliko dute pdf A4 formatuan eta hurrengo helbide elektronikora: workshop@colectivoyox.com

BI ARLOEI OROKORRA DEN DOKUMENTAZIOA

Datu pertsonalak.

Orden honetan honakoak jasoko dituzte:

- Aurkezten den arloa: Ikus/arte edo moda- sorkuntza.
- Izena.
- Jaioterria eta urtea.
- Bizi den hiri edo herria.
- Heziketa.
- Gaur egun bitarte bere aktibitatearen deskribapen laburra: esperientzia, merezimenduak, etab.
- Hautagaiak egindako lanen irudiak.

Bere arloko (ikus-arte edo moda- sorkuntza) proiektu pertsonal espezifikoak.

Orden honetan honakoak jasoko ditu:

- Proiektuaren izenburua.
- Proiektuaren kontzeptu eta deskribapena.
- Proiektuan Cristóbal Balenciagaren oihartzunak nola isladatzen diren zehazten duen deskribapen laburra.

DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA. Ikus- arteen arloa.

Proiektuaren 1-3 zirriborro.

DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA. Moda- sorkuntza arloa.

Gauzatutako 1-3 moda- sorkuntzen argazkiak.